

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Lehenik eta behin taberna kate garrantzitsuekin kontaktatu beharko dugu gure produktua eskaini eta azaltzeko, izan ere hauek izango dira lokal gehien izango dituztenak eta gure produktua ezaguna egingo dutenak. Beste alde batetik eta aldi berean Eusko Jaurlaritzari zein gure inguruko udaletxei ezkeiniko dizkiegu gure zerbitzuak haiek kontuan izan ditzaten eta haiek antolatutako ekitaldietan ezarri ditzazten; aforoa kontrolatu behar den lekuetan jar dezaten.

Bezero bezala mantentzeko gure produktuak (app-a gehien baten) berrikuntzak eta hobekuntzak izango ditu, gure sare sozialetan berri emango genuke berrikuntzen inguruan komunitate osoak jakin dezan.

Gure bezeroarekiko harremana telefonoz (erantzungailu automatikoa zein pertsonala), fisikoki eta app-aren auto-zerbitzuaren bitartez izan liteke. Horrez gain app-aren barnean kontsumitzaile komunitate osorako chat bat sortuko genuke gomendioak zein kritikak jasotzeko.



Bezeroek gu ezagutzeko haiekin kontaktuan jarriko gara. Gure produktua taberna/jatetxe/diskoteka... nagusiei eskainiko diegu. Gurekin harremanetan jarri izan ahalko dira edozein arazo izatekotan eta gu geu arduratuko gara arazoari soluzioa emateaz; arazoa sentsorearekin izatekotan, kontratatutako enpresarekin egingo genituzke izapideak.

